

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



MEMORIA HISTORIKOAREN DOKUMENTAZIO ZENTROA. SALAMANCA.

EMAKUMEAK BILBO DEFENDATZEN, «MUJERES» ALDIZKARIAN

1937ko otsailaren 6an ateratzen zen kalera “Mujeres” aste-kari grafikoaren lehen alea, Florentina Taxende Sestao-ko EAE-ANVko militantea buru zuen Euzkadiko Gerra eta Faxismoaren aurkako Emakumeen Batzordeak argitaratua. Astekaria Maria Luisa de la Presak zuzentzen zuen eta bertan Aurora Perez Ricart (JSU), Maria Sanroma (FAI), Maribel Larrañaga eta Juanita Lefebre aritzen ziren lanean. Erredakzioa Bilboko Astarloa kaleko 7.ean zegoen. “Mujeres” astekariak garrantzi handia eman zien bere azalei, emakume langileen erretratuak aukeratuz, horietako batzuk garai hartako argazki-abangoardiakoak; barnealdekoak klasikoagoak ziren eta ez zera-maten egilearen sinadurarik. Asmo adierazpen batean, astekariak hauxe zioen: «...emakume antifaxistarentzat gaur egun Euzkadiren alde gerraren aurka borrokatzeko modurik onena atzeguardiako lan guztietan murgiltzea da. Gaur inoiz baino gehiago, esaten dugu: beso bat ere ez geld, indar produktiborik ez erabili gabe. Emakume euskaldunaren esku saiatuak produkzioan laguntzeko prest daude...». 1937ko maiatzaren amaieran, eta Bilbo erortzeaz zela ikusita, 15. zenbakian editorialak honela zioen: «Dilema barkaezina; gizonak Bilbori bere defentsa ukatzen badiote, emakumeok defendatuko dugu». Zenbaki horretan bertan, azalean emakume batzuk ageri ziren gotorleketan lanean, eta barruan egindako elkarrietzeta batean, “Osasuna gotorlekuko brigada femeninoei” izenburupean, beren lana aldarrikatzen zuten, eta halaxe eskatzen zieten elkarrietzetaren amaieran lankide gizonak: «...utziezaguzue lanean, lagunak, eta utzi behingoz kritika hutsalak egiteari».